

Euskarabentura 1.mp3

Esataria: Aurten, EuskarAbentura espedizioa 150 lagunek, 16-17 urte bitarteko 120 gaztek eta 30 helduk osatuko dute. Mauletik abiatuko dira, eta, Euskal Herria zeharkatu ondoren, Getxo izango dute helmuga.

–Zer da EuskarAbentura?

Neska: EuskarAbentura Euskal Herriko herrialde eta hiriburu guztietatik igaroko den espedizio gazte bat da; UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatutako guneeetatik ere pasatuko da. Euskal Herri osoko eta diasporako 16 eta 17 urte bitarteko 120 gaztek euskararen lurraldea luze-zabal zeharkatuko dute oinez.

Esataria: Zer egin behar dute parte hartu nahi duten gazteek?

Neska: Parte hartzeko, gazte bakoitzak lan bat eta motibazio-gutun bat egin beharko ditu. Horren inguruko informazio guztia gure webgunean aurkituko dute. Lan onenek beka bat irabaziko dute; beraz, ez dute ezer ordainduko. Horretaz aparte, lurralde guztietako jendea egongo dela bermatu nahi dugu, eta, era berean, neskak zein mutilak neurri berean edo oso antzerakoan izango ditugula.

Esataria: Zein dira helburuak?

Neska: Lau ardatz dira nagusi. Lehenik eta behin, izenak esaten duen moduan, gure xedea euskararen erabilera sustatzea da. Horrez gain, gazte euskaldunen artean sare bat sortzeko helburua dago: errealitate linguistiko desberdinetatik datozenak batzen ahalegintzen gara, oso euskaldunak eta hain euskaldunak ez diren inguruetako jendea elkartzen. Hirugarren helburua da Euskal Herriaren ezagutza (historia, kultura, geografia, gizateriaren ondareak...). Eta, azkenik, baloreak lantzen ditugu. Elkarrekin hilabetea ematen dugu. Harremana oso estua da eta lantzen ditugun edukietan ingurumenarekiko errespetua, zaborraren kudeaketa egokia, turismo arduratsua eta elkarbizitza bezalako baloreak lantzen ditugu. Kontzientzia soziala sartzen saiatzen gara.